

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak eta MODERNA fundazioak hitzarmena izenpetu dute gaitasun handiko ikasleei arreta hobea emateko

*Nafarroan 134 ikasle erroldatuta daude, 62 Lehen Hezkuntzan eta 72 Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan*

Lunes, 03 de septiembre de 2012

Nafarroako Gobernuak eta MODERNA fundazioak lankidetzaz hitzarmena izenpetu dute gaur; haren helburua gaitasun handiko ikasleen arreta hobetzea da eta DBHn eskola-arrakasta bilatzen duten berrikuntzako neurriak ezartzea. Testua Hezkuntzako kontseilari José Iribas-ek eta fundazioko zuzendari Cernin Martínez-ek sinatu dute.



Hezkuntzako kontseilaria (eskuinean) eta MODERNA fundazioko zuzendaria (ezkerrean) hitzarmena izenpetzen.

Hitzarmenak jasotzen duenez, MODERNA fundazioak 25.000 euro jarriko du proiekturako. Diru hori erabiliko da: metodologia berritzaileak diseinatu eta esperimendatzeko lan-talde bat sortzeko; hautemate-probak bereganatu eta aplikatzeko; langileak, familiak eta orientazioko langileak prestatzeko; curriculum-aberastasuneko tailerrak nahiz programak abian jartzeko, ikasturte guztian zehar, Batxilergoko Olinpiadei lotuta; eta Bigarren Hezkuntzako, LHko eta Batxilergoko ikasleentzat aholkularien programa bat abian jartzeko, unibertsitateko irakasleekin.

Bestalde, programa-pilotu bat abian jarriko da, Lehen Hezkuntzatik Bigarrenorako trantsizioan eskola-arrakastaren indize handiagoa ziurtatuko duten antolaketa-egiturak nahiz metodo berritzaileak ezartzeko. Zehazki, teknologia berrien tresnak bereganatzen eta garatzen lagunduko du. Hitzarmenak urtebete irauteko du eta luza daiteke.

Gaur izenpetu den hitzarmenak gaitasun handiko ikasleen hezkuntza-arretako Plana garatzen lagundu nahi du, eta haren helburua ikasteko gaitasun, errendimendu eta motibazio handiena duten ikasleei ahalik eta arreta egokiena ematea da; hala, beren irakaskuntzan aurrera egiten jarraituko dute ondorengo ikasketetan utzikeria edo interes-falta agertzeko arriskurik gabe.

Gainera, MODERNA fundazioak proiektu honekin prozesuak, mekanismoak, jarduera pedagogikoak eta materialak garatu nahi ditu, gaitasun handiko ikasleei arreta egokia eta banakoa eskaini ahal izateko,

bai eta beharrezko pausoak eman ikasle bakoitzaren talentua nahiz beren banako garapena goiz samar hautemateko helburu batekin: hezkuntza-sistema garapen intelektualaren eta profesionalaren motorra izan dadin eta Nafarroako gizartearen nahiz ekonomiaren talentuaren motorra. MODERNA Planak ezartzen duen garapeneko eredu berria oinarritzen da Nafarroako haur eta gazte guztiak beraien talentuaz jabetzean eta sustatzean. gaitasun handiak dituzten jarduera horietarako, era horretan etorkizunean motibazio handiena duten lana topa dezaten eta, hortaz, gizarteari ekarpena handiena eginez.

### **Gaitasun handiko 134 ikasle**

Nafarroan gaitasun handiko 134 ikasle erroldatuta daude, guztira; kopuru horretatik, 95ek (60 gizonezko eta 35 emakumezko) sare publikoan ikasten dute eta 39k (21 gizonezko eta 18 emakumezko), kontzertatuan. Haietatik, 62 Lehen Hezkuntzan daude (46 sare publikoan eta 16 kontzertatuan) eta 72 Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan (49 publikoan eta 23 kontzertatuan).

Hezkuntza Departamentua amaitzen ari den gaitasun handiko ikasleen hezkuntza-arretako Planaren helburua da, gaitasun intelektual handiko ikasleen hezkuntza-beharrei erantzun integrala ematea, ikuspegi barneratzaile eta pertsonal batetik, pixkanaka normaltasunetik bikaintasunera jokatzuz. Bertan hezkuntzako bi erantzun-lerro bereiz daitezke.

Alde batetik, hautemate eta diagnostikoko prozesuak barnean hartuko dituen curriculumeko hezkuntza-erantzunak, eta ikastetxeetako ikasgela eta jardueretatik eskaini daitekeen hezkuntzako erantzuna (hezkuntzako arreta, biziagotzea eta curriculumaren malgutasuna...).

Beste alde batetik, ezagutzetan sakontzeko programak eta eskola-ordutegitik kanpoko curriculumak aberasteko tailerrak. Programa eta jarduera horiek ikasteko gaitasun, interes eta motibazio handiena izateagatik nabarmentzen diren ikasleentzat izango dira, oinarritzko irakaskuntzan nahiz nahitaezkoaren ondorengoan; hala, aukerak eskainiko zaizkie, beraien gaitasunak hobeto gara ditzaten eta beraien garapen pertsonala, emozionala, pertsona artekoa nahiz beraien lan-etorkizuna hobetzeko.